



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

UDAL PLENOA
Bilkura ezohikoa

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2015/07/13 HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 17:00 - 17:40	TOKIA Udaletxea
--	--------------------

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Maria Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak:	Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
	Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
	Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
	Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
	Juan Carlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
	Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
	Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
	Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
	Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
	Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
	Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
	Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
	Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
	Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
	Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE/PSOE)
	Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE/PSOE)
	Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE/PSOE)
	Igor Urizar Murgoitio (BALEIKE)
	Eva Abuin Bideburu (BALEIKE)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai (Kontuhartzailea)



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

**BILDU EZ DIREN
ZINEGOTZIAK:**

Juan Luis Merino Sanabria (IRABAZI ARRASATE)

**BERTARATZE ETA
IRTEERAK:**

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Arratsaldeon guztioi eta hasiera emango diogu gaurko plenoari.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2015eko ekainaren 13an egindako ezohiko Plenoaren akta (Udal Korporazioa eratze bilkura) onartu du.

2.- UDAL TALDEEN ERAKETA ETA BERAIEEN BOZERAMAILEEN IZENDAPENEN BERRI EMATEA (2015SKOR0001)

Alkatetzak Udal Plenoari jakinarazi dio ondoren zehazten diren udal taldeak osatu direla, Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 24 eta 25 artikuluetan eta Udal Araudi Organikoaren 14. artikuluan eta hurrengoetan aurrikusitakoaren arabera:

1.- Udal Taldea: **EAJ-PNV**

Partaideak:	Maria Ubarretxena Cid
	Ibon Arrupe Aldecocce
	Juan Ramon Mendieta Garay
	Ander Garay Zabaleta
	Amaia Ceciaga Garmendia
	Juan Karlos Garitano Ezkurra
	Amaia Azpiazu Aramburu
	Anuska Ezkurra Zubizarreta



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

Bozeramailea:	Anuska Ezkurra Zubizarreta
---------------	----------------------------

2.- Udal Taldea: **EH BILDU**

Partaideak:	Eneko Barberena Mondragon
	Amaia Larrañaga Galdos
	Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga
	Maialen Zabaleta Madinabeitia
	Jose Luis Encinas Jose
	Itxaro Artola Lizarralde
	Urki Larrea Ibabe
Bozeramailea:	Eneko Barberena Mondragon

3.- Udal Taldea: **SOCIALISTAS VASCOS (PSE-EE) PSOE**

Partaideak:	Oscar Garcia Horrillo
	Victoriano Fuentes Noguera
	Anabel Legaz Canflanca
Bozeramailea:	Oscar Garcia Horrillo

4.- Udal Taldea: **BALEIKE**

Partaideak:	Igor Urizar Murgotio
	Eva Abuin Bideburu
Bozeramailea:	Eva Abuin Bideburu

5.- Udal Taldea: **IRABAZI ARRASATE (Ezker Anitza-IU, Equo, Independientes)**

Partaideak:	Juan Luis Merino Sanabria
Bozeramailea:	Juan Luis Merino Sanabria

Udal Plenoa jakinaren gainean gelditu da.



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

3.- UDAL PLENOKO BILKUREN ALDIZKOTASUNA ONARTZEA (2015SKOR0001)

Udal Plenoak, aho batez, Alkatetzak aurkeztutako ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Plenoko bilkura arrunta zein egun eta ordutan egingo diren erabaki beharra dagoela eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2 artikuluan eta Udal Araudi Organikoaren 57.1 artikuluan, bai eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 78.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkatetzak zera proposatzen du:

*- Udal Plenoak bere bilerak **hileru, lehenengo asteartean, arratsaldeko seietan** egitea eta egun hori jaieguna balitz hurrengo ostegunean.”*

4.- BATZORDE INFORMATZAILEAK ERATZEA (2015SKOR0001)

Idazkariak Alkatetzaren ondoko proposamena irakurri du:

“Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20.1.c artikuluan, Udal Araudi Organikoaren 38. artikuluan eta hurrengoetan, bai eta Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 123. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, Batzorde Informatzaile iraunkorrak sortu eta nola osatuko diren erabaki beharra dagoela eta, Alkatetzak ondoko erabakia har dezan proposatzen dio Udal Plenoari:

LEHENENGO.- Jarraian zehazten diren Batzorde Informatzaile Iraunkorrak sortzea:

- 1.- Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzorde informatzailea
- 2.- Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Anzuetako batzorde Informatzailea.
- 3.- Enplegu eta Pertsonal batzorde Informatzailea
- 4.- Ogasun batzorde informatzailea
- 5.- Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomia Sustapeneko batzorde informatzailea
- 6.- Kirol, Gazteria, Berdintasun eta Hezkuntza batzorde informatzailea.
- 7.- Kultura eta Euskara batzorde informatzailea.
- 8.- Gizarte Ongizateko Batzorde Informatzailea.

BIGARREN.- Osaketa: Batzorde bakoitza Udal Plenoan ordezkaturako Udal Talde bakoitzeko ordezkari batekin osatuko da (5 kide).



Esp.kodea:

2015SAPL0010«Código de expediente»

***HIRUGARREN.-** Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. artikulua, Toki Ogasuna erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 193. artikuluekin bat etorriz, Kontuetako Batzorde Berezari ematen dizkion eskuduntzak beregain hartuko ditu Ogasuna Batzorde Informatzaileak, ondorio hauetara aipatu funtzioetarako izatera horretan eratzen delarik.”*

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Interbentziorik?, Bai, Eneko

ENEKO BARBERENA (EH BILDU): Arratsaldeon denoi. Guk bai daukagu honen inguruan hainbat ñabardura eta kontu apur bat azaltzeko. Geu ez gaz ados egin dan planteamenduekin ondorengo arrazoiengatik: alde batetik eta hainbat aldiz aipatu dugu, gai edo arlo batzuk euren artean elkartzeak eragiten dozkula zalantza ez dan emango nolabaiteko solapazio, bat ez? Adibidez, hor seigarren batzordean, kirola, gazteria, berdintasuna, hezkuntza bolumenagatik ez dan gailenduko arlo bat bestean gainean, eta ez ote den guretzat inportanteak dien hainbat arlo nolabait arlo atzean geratuko edo euren inportantzia ez dan nahiko geunkena baino txikiagoa izango ez?

Bestalde, bai Bozeramale Batzordean, eta baita aurretik ez, komentatu izan da batzordeak murriztean arrazoa zela nolabait euren garrantzia eman eta Tokiko Gobenu Batzordearen lekua edukitzea ez? Baina hemen badaz bi batzorde ez dauzenak Tokiko Gobernu Batzordean, bata da, eratu berria dan Komertzio, Turismo, Teknologia Berria etab. Eta bigarrena Gizarte Ongizateko batzordea. Ez dakigu dan garrantzia txikiagoa eman nahi jakelako, ze badaz bi zingotzi Tokiko Gobernu Batzordean ez daukenak batzordearen ardurarik ez? Aukera zegoen hortarako, ez da hori egin, eta bueno guretzat bereziki ez dakigunez batzorde berriak ze eduki edukiko dauen, komertzio, turismo etab, bueno ez dakigu ze mami edukiko dauen, ez dakigu ze ezberdintasun ekarriko dauen adibidez enpleguarekiko Enpleguaren batzordearekiko bueno hori be joango gara deskubritzen imajinatzen dot. Baina bai Gizarte Ongizateko batzordea guretzako zentrala izan dana azkeneko lau urteetan eta bueno guretzako be lehentsaunezko dala Tokiko Gobernutik at geratzea, ez jaku iruditzen planteamendurik onena ez?

Gero, bestalde zortzi batzordeetatik bakarrean da buru emakumezkoa, hau da zazpi gizon daz bestietan. Uste dut apur bat orekatuagoa izatea, guri behintzat gehiago gustau jakula. Faltan bota dou partehartzea lantzeko batzorde bat, bere hartan denok eta kanpainan danok ahotan eduki dugun gai bat izan da, baina gero ez dau eduki hemen garrantzirik. Aldiz teknologia berriak eta bai, ez nahiz eta kanpainan ez zabien eduki espazio larregirik, eta bueno nahiz eta egia dan guk eduki genuela eskaintza bat gobernuan sartzeko, eta ezetz esan ginun, bueno ba ez da hartu gure iritzia aintzat antolaketa honen inguruan ez? Orduan oposizioko lehenengo taldea izanda, eta zazpi hautetsi edukita bueno hori be faltan bota dugu. Orduan laburbiltzeko, eta hasieran esan dan moduan, gu ez gauz ados egiten dan planteamenduekin.

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Eskerrik asko Eneko. Gauza bat. Egia da Bozeramaile Batzordean akats bat egon zela, geroago konturatu ginen eta izan da Komertzioa, Turismoa, Teknologia Berriak eta Sustapen Ekonomikoa eruango dauen pertsona izango dela Victoriano Fuentes Noguera, ze esan genuen bezala, guk zortzi batzordera pasatu izatea 13 batzorde. Ba hor irizpide nagusia izan da batzorde buruak Tokiko Gobernu Batzordeko kide izatea, legez tokiko batzordeko kide bakarrik zazpi



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

pertsona izan ahal dira, dakizuen bezala, zazpi gehi alkatea. Eta horregatik gelditzen da momentu honetan BALEIKEk eramango duen komisio hori Ongizatea kanpoan, bai egongo da batzordeburu bat Tokiko Gobernu Batzarrean egongo ez dena, beste guztiak bai. Eta bueno, irizpide nagusia izan zan han adierazi genuen bezala legez alkateak badaukalako bere konpetentzia generikoak Tokiko Gobernu Batzordean dauen pertsona bati transferitzeko ahalmena, baina ez horrela Tokiko Gobernu Batzarrean ez dagoen pertsona bati. Eta iruditzen zaigu ba batzordeburu batek eskumena eduki behar duela batzordeak gestionatzeko, dirulaguntzak aprobatzeko, erabakiak hartzeko, dokumentuak sinatzeko eta horregatik garrantzia gehiago ematea da batzorde horiei beraien batzordeburuak Tokiko Gobernu Batzarrean egonda. Ez dakit beste norbaitek hitza nahi duen. Bozketara pasatuko gara

Bozketaren emaitza: **Alkatetzaren proposamena, batzorde informatzaile iraunkorrak sortzeari buruzkoa, ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	20	
Aldeko botuak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Aurkako botuak:	7	EH BILDU (7)
Abstentzioak:	2	BALEIKE (2)

5.- ORDEZKARIAK IZENDATZEA KORPORAZIOAK ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATUETARAKO (2015SKOR0001)

Idazkariak Alkatetzaren ondoko proposamena irakurri du:

“Udalbatza berria eratu dela eta, Udal Plenoak organo kolegiatuetan Udal Korporazioaren ordezkarien izendapen berriak egin behar dituela eta, Alkatetzak, aurreko izendapenak bertan behera utziz, honako akordio hau hartzea proposatzen dio Udal Plenoari:

LEHENENGO.- Jarraian zehazten diren udal honetako zinegotzien izendapenak onartzea, Arrasateko Udalaren ordezkari gisa jardun dezaten zehaztutako erakundeetan, orain arte indarren zenden izendapenak baliogabe aitortuz.

-DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEKO Gobernu Juntako kideak:

MARIA UBARRETXENA CID
Ordezkoa: ANDER GARAY ZABALETA

OSCAR GARCIA HORRILLO
Ordezkoa: VICTORIANO FUENTES NOGUERA

IBON ARRUPE ALDECOCEA
Ordezkoa: AMALA AZPLAZU ARAMBURU



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
Ordezkoa: JUAN RAMON MENDIETA GARAY

- ITURBIDE EGOITZA udal erakunde autonomoa:

Gizarte Ongizateko batzorde informatzaileko batzordekideak (Lehendakaria izan ezik), hango Lehendakaria, Alkatearen delegazioz- IGOR URIZAR MURGOITIO izango delarik

- SURADESA:

IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCIA HORRILLO

- GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOA:

OSCAR GARCIA HORRILLO
Ordezkoa MARIA UBARRETXENA CID

- DEBAGOIENENKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA:

IBON ARRUPE ALDECOCEA

- ARRASATE MUSIKAL:

JUAN RAMON MENDIETA GARAY
ANUSKA EZCURRA ZUBIZARRETA

- EUSKAL FONDOA:

AMALA AZPLAZU ARAMBURU

- CEI-SAIOLAN:

MARIA UBARRETXENA CID
Ordezkoa OSCAR GARCIA HORRILLO



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

- **GARAIA BERRIKUNTZA GUNeko ELKARTE SUSTATZAILEA, Enpresa Zerbitzu Koop.Elk.:**

MARIA UBARRETXENA CID

- **GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK, KOOP. ELK.:**

ANDER GARAY ZABALETA
Ordezkoa: OSCAR GARCIA HORRILLO

- **ZUBILLAGA HILTEGIA, S.L.:**

OSCAR GARCIA HORRILLO
Ordezkoa: IBON ARRUPE ALDECOCEA

BIGARREN.- Erabaki hau izendatutako ordezkarietara zeregin organo kolegiatuen erakundeei jakinaraztea.”

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Interbentziorik?, Bai, Eneko

ENEKO BARBERENA (EH BILDU): Bueno, guk horixe, bota dugu faltan nolabait zazpi hautetsi daukan talde batei aukerarik ez ematea udal ordezkarietara horretan, ez dugu egiten bat proposamenarekin.

EVA ABUIN (BALEIKE): Udal hauteskundeetan Arrasate anitz eta ugari baten alde bozkatu zuten herritarrek. Ondorioz gure ustez organo instituzionalak horren ispilu izan behar dira. Badakigu batzorde batzuk organo kolegiatuekin erlazioa zuzena dakatela, baina beste kasu batzuetan dibertsitatea sortzeko aukera dago. BALEIKEk asanbladan bildurik Tokiko Gobernu Batzordean ez partehartzea erabaki genuen.

EAJ programa orokorrarekin bat egiten ez dugulako. Hala ere, puntu konkretu batzuetan adostasunak lortu ditugu arrasatearren alde hobekuntzak direla uste dugulako, adibidez, gizarte zerbitzuak indartzea, mugikortasuna erraztea, umeentzako parkeen hobekuntzak ...

Gure akordioa ez da sigla batzuekin edo alderdi batekin, puntu programatiko batzuekin baizik. Akordioa komunibideetan argitaratuko dugu. Asanbladan erabaki genuen Ongizate batzarraren kudeaketa onartzea gutxien dutenen alde lan egiteko aukera delako. Gure jarrera eraikitzailea izango da, ez gara politikan sartu lau urteetan siglak aurpegira botatzeko beste formazio batzuk ohituta dauden bezala jarrera hauek politika zaharraz identifikatzen baiditugu.



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

Guk gogor lan egiteko aurkeztu ginen eta gure lekuan oposizioan dagoela argi ikusten dugun arren ongizate arloa kudeatuko dugu krisialdi honetan gutxien duten jendearen alde lan egiteko. Eskerrik asko.

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Eskerrik asko Eva, bueno nik Eneke bakarrrik esatea nik pentsatzen dut argi gelditu dela...ah, barkatu Oskar, aurrera.

OSCAR GARCIA (PSE-EE): Respecto a lo que has dicho Eneko, a mí me da vueltas en la cabeza algo, que es que en la anterior legislatura vosotros teníais 11 concejales y el resto de la Corporación otros 11 concejales, y tampoco hicisteis nada porque el resto estuviesen representados, con lo cual no entiendo qué quejas tienes ahora, si hay una mayoría más fuerte que la anterior y están representados dos partidos políticos en lugar de uno. Nada más.

ENEKO BARBERENA (EH BILDU): Nahiz eta badirudi badagoela gehiengo hori, guk ikusten duguna da aurreko legealdian ez zegoela zazpi zinegotziko bloke indartsurik, zazen blokeak txikiagoak ziren, dispartsoak euzen. Kasu hontan ikusten duguna da hori nolabait ordezkatzeko dugula Arrasateko zati garrantzitsu bat, eta bueno horri kantxa ematea nahi ginun. Besterik ez.

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Nik esan behar nauena lehen zan guk EH-Bilduri aukera eman geniola hasiera hasieratik, gainera inongo baldintzarik ipini gabe. Zuen partehartzea udaletxean bermatuta egon zedin, bai gobernuan sartzeko aukerarekin baita ere batzordeak eramateko aukerarekin, gobernuan sartu gabe, eta ez lehenengo aukera eta ez bigarren aukera ez ziren izan zuen gustokoak.

Nik pentsatzen dut oso argi dagoela Amaia eta zu egon zineten bilera haietan, eta ezin duzue esan guk inolako baldintzarik ipini genuela, ze guk ez genuen inolako baldintzarik ipini. Orduan zuen erabakia izan da udal gobernuan ez egotea eta Oscarrek esan duen moduan aurreko legealdian EH-Bilduren ordezkariak egon ziren organo guztietan ez zen oposizioko taldeko ordezkariarik egon, Bilduk ez zuelako aukerarik eman, eta bueno, guk legealdi honetan behintzat bi alderdi politikori eman diogu aukera, danei eman diogu aukera, baina bi alderdi politikok onartu dute ordezkari bezala sartzea. Alde batetik sozialistak sartu dira eta beste alde batetik BALEIKEk ere onartu du Ongizateko Lehendakari hori ere hartzea. Hori hor gelditzen da.

Beste inorrek ezer esaterik baldin badauka bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Alkatetzaren proposamena, ordezkariak izendatzeari buruzkoa, ONARTUA izan da.**



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

Bertaratutakoak	20	
Aldeko botuak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Aurkako botuak:	7	EH BILDU (7)
Abstentzioak:	2	BALEIKE (2)

6.- PROPOSAMENA, UDAL KARGUEN DEDIKAZIOAREN ASIGNAZIOARI BURUZKOA ETA BILERETARA JOATEAGATIK ORDAINKETEI BURUZKOA (2015SKOR0001)

Idazkariak Alkatetzaren ondoko proposamena irakurri du:

“Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituenak, 75.1 artikuluan xedatzen du eskubidea izango dutela ordainsariak jasotzeko eta alta emateko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean Toki Udalbatzetako kideek, beti ere, erabateko dedikazio edota dedikazio partzialeko erregimenean dagozkien erantzukizunak gauzatzeko badituzte.

Aipatu xedapenean jasotakoa ikusirik eta kontuan izanik udal funtzionamendu eta kudeaketa eraginkor bat lortzeko egokia dela Udal Korporazioko hainbat kidek beraien karguan dedikazioarekin aritzea, Alkatetza honek ondoko akordio hau hartzea proposatzen dio Udal Plenoari:

LEHENENGO.- Ondoren zehazten diren karguak finkatzea zinegotzietatik erabateko dedikazioaz betetzeko:

- *Alkatea: MARIA UBARRETXENA CID, 65.000 €ko ordainsari gordina urteko, hamalau hiletan ordaintzekoa.*
- *Bigarren Alkateordea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kidea: OSCAR GARCIA HORRILLO, udal soldata tauletako 14.mailari (UDALHITZ) dagokion ordainketarekin, 32.831,36 €, hamalau hiletan ordaintzekoa.*
- *Laugarren Alkateordea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kidea: ANDER GARAY ZABALETA, udal soldata tauletako 14.mailari (UDALHITZ) dagokion ordainketarekin, 32.831,36 €, hamalau hiletan ordaintzekoa.*

BIGARREN.- Ondoren zehazten diren karguak finkatzea zinegotzietatik zatikako dedikazioaz betetzeko:

- *Lehenengo Alkateordea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kidea: IBON ARRUPE ALDECOCEA, udal soldata tauletako 14 mailari (UDALHITZ) dagokion ordainketarekin, 32.831,36 €, hamalau hiletan ordaintzekoa, % 55eko jardunari dagokiona.*
- *Hirugarren Alkateordea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kidea: JUAN RAMON MENDIETA GARAY, udal soldata tauletako 14.mailari (UDALHITZ) dagokion ordainketarekin, 32.831,36 €, hamalau hiletan ordaintzekoa, % 50eko jardunari dagokiona.*



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

HIRUGARREN.- *Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean ANDER GARAY ZABALETÁ, IBON ARRUPE ALDECOCEA eta JUAN RAMON MENDIETA GARAY udalkideen alta izapidetuko du Udalak, eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean arauak bere zerbitzupeko langileei ezartzen dizkien obligazioak hartuko ditu beregain Udalak.*

MARIA UBARRETXENA CID eta OSCAR GARCIA HORRILLOren kasuetan, LAGUN-AROKO afiliatuak direnez, ez dira Gizarte Segurantzaren sartuko eta altan jarriko, eta Udalak beregain hartuko ditu LAGUN-AROKO afiliazio horien hileko ordainketak.

LAUGARREN.- *Aipatu dedikazioak 2015eko uztailearen 14tik aurrera aplikatuko dira.*

BOSGARREN.- *2015eko Aurrekontua Betetzeko Arauaren 18.3. artikulua aldaketa onartzea, jarraian zehazten den terminoetan:*

18.artikuluko 3.c atala honela geldituko da idatzita aurrerantzean:

Dedikaziorik aitortu ez zaien zinegotzietan (ez erabatekoa ez eta partziala) udaleko organo kolegiatuetako bileretara joateagatik (Udal Plenoa, Tokiko Gobernu Batzarra, Bozeramaileen Batzardea, Batzarde Informatzaileak eta Iturbide Egoitzako Zuzendaritza Batzardea), honako ordainketak jasoko dituzte:

- *Batzordeburuek eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoko Lehendakariak, ardura hori duten batzardeen bileretan 115 €/bilerako*
- *Gainontzeko zinegotzietan 57 €/bilerako*

SEIGARREN.- *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.5 artikuluan xedatutakoa betetzeko, erabaki hau, udal karguen dedikazioaren asignazioari dagokionez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zehin Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da."*

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Interbentziorik?, Bai, Eneko

ENEKO BARBERENA (EH BILDU): Guk, eta atalez atal ikusteko, lehengo eta behin Alkatearen soldataren inguruan igoera dexentekoa da, %40-45 inguru, eta gaur egungo testuinguru ekonomikoan ez dugu ikusten justifikaziorik igoera hau aplikatzeko, ez are gehiago Arrasateko egoera ekonomikoa, langabezia %15tik gora, bueno ez dakigu dan garaia horrelako igoera bat planteatzeko ez?

Bestetik, komentau zan Bozeramale Batzardean liberazioetan eta batzordetako ordainsarrietan egingo dan gastua dela Bilduren gastuarekiko gutxiago. Guk kasu hontan uste dugu murrizketa hau dela batzardeak konprimitzen ondorio batez be, eta kudeaketan kaltetan, hau da, uste dugu lehen be esan dugu ez genduela



Esp.kodea:

2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

ados batzordeen inguruan egin dan planteamenduakin eta bueno are gehiago jakinda murrizketa horren fruitu dela, ez?

Gero presidenteen diru saria bikoiztu dela eta egia esan presidentetako asko jada liberatuta daz, oker ez banaz, Juan Karlos, Victor eta Igor ezik beste denak liberatuta daz, ez? Orduan, zentzu hortan, ez genuen ikusten motibo berezirik are gehiago komentau zan Eudelen gomendio bat zela, hortaz ez dago zertan aplikatu gomendio hori, eta ikusten ginun bai alkatearen soldata baita gero batzordeetako presidenteen ordainsariak nolabait osatzea alderdi politikoei ematen jakon diru poltsatik ez dela hementxe aipatzen, baina bueno diru poltsa hori ez dakigu zein izango dan planteamendua, baina orain arte egon da eta bueno geu horrenbestez esandako arrazoiengatik ez gaz ados planteamenduarekin.

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Eskerrik asko Eneko. Beste norbaitek hitza nahi du.

IGOR URIZAR (BALEIKE): Udal kudeaketan lan kargak eta dedikazioaren arabera ordaindu behar dela pentsatzen dugu, beti zentzuzko eremuetan. Gure kode etikoak, adibidez, oposizio edo gobernuan hiru SMiko topea sartzen du, 2000 € baino gutxiago soldata duin bat delako pentsatzen dugulako. EUDELEN irizpide batzuekin ados gaude, baina aldi berean krisialdi momentu hauetan ordezkariak eredu izan behar direla uste dugu. Hortaz soldata masaren totalaren 3.41 murrizketa ondo iruditzen zaigu baina aldi berean, ezin dugu soldata bakar baten igoera onartu.

Azkenik asistentzia dieten gainean ulertzen dugu batzorde lehendakariak lan eskergak eta erantzukizun maila handiagoa dutela, eta ondorioz dieta hori zentzuzkoa dela baina bikoiztea gehiegi iruditzen zaigu.

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Eskerrik asko Igor. Norbaitek hitza... Anus,

ANUSKA EZKURRA (EAJ-PNV): Eman duzun Eneko datu hoiek, egia da eman duzu datu bat %3 inguruko jaitsiera izan dela bueno, guk kontuak atera ditugu eta ia aurreko legealdiarekin alderatuz % 2a izan dela jaitsiera hori. Guk azken finean uste dugu, hemen guztiok, mahai honen inguruan lanean ari garen guztiok, ba ordasari bat horren dedikazio horren eratzuna izan behar dela jasotzen diren dieta edo retribuzio hoiek. Guk gehiago egin duguna da eratu diren batzordeak eta lan karga kontuan izanik uste dugu benetan goraiatzekoa dela %2ko jaitsiera hori. Eta bai esateko alkatearen % ez dakit zenbatekoa esan duzun, bai esan, hemen dauzkagu baita Bilduk zuek diruzaintzan irizpideak erabiltzen dituzuen irizpideak kontuan izanik, irakurrikot bertan jartzen dauena, liberatuen soldatan inguruan, eta horrela jartzen du “ *bere lana utzi edo eszedentzia hartu behar baldin badu liberazio eskuratzeko, lanean zeukan soldata bera mantenduko zaió*”. Gogorarazi nahi dizuet Maria Ubarretxena alkatea Eusko Jaurlaritzako Zuzendari izanik bere soldata maila 67.000 eta piko eurotakoa dela, Alkatea Arrasateko alkatea datorrela Arrasateko alkate izaten bere soldata murriztuaz.



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Eskerrik asko Anuska. Eta bueno neri bai gustatuko litzaidake esatea guk murrizketa hori ez dugula egiten kontuan izanda komisioak, guk murrizketa hori egin dugula udal karguetan. Aurreko legealdiak zeukan Alkate bat, soldata bajuago batekin, bai, baina hortik aparte zeuzkan: 2 liberatu oso, liberatu bat erdira, liberatu bat % 25era eta marketing eta komunikaziorako asesora bat. Bueno, ba diru masa horretatik gu azpitik geldituko gara. Udal gobernu bakoitzak zelan organizatzen duen bere udala, bueno ba udal gobernu bakoitzaren arabera gelditzen da, baina kargu politikoen masa totala lehengo legealdiarekin konparatuta guk Bilduk egin zuen gastuaren azpitik geldituko gara. Eta hori kontuan izan barik batzordeak. Zuk aipatu dituzu dietak. Eta hemen bueno, jendeak ez baldin badaki, gustatuko litzaidake baita ere gogoratzea liberazio daukaten politikariek ez dutela dietarik kobratzen, beraz, Presidentzietako batzordeburuak izango dienak eta dieta kobratuko dituztenak liberatu gabeko politikariak izango dira. Liberatutako politikariek ez baitute inolako dietarik kobratzen. Eta baita ere gustatuko litzaidake, bueno ia ke hemen gazen, gogoratzea ANVren garaian bi kontzeptu zeudela, eta partidoa ilegalizatuta egon zenez, bueno, epaile batek erabaki zuen bi kontzeptu kentzea baina udaletxe honetan zelan funtzionatzen zen, presidentziagatik zinegotzi bakoitzari ordaintzen zitzaion ANVren garaian 12.000 € urtean, eta aldi berean zinegotzi berdin horiei Tokiko Gobernu Batzarraren kide izateagatik 5400 € gehiago, hau da, 17.400 €. Bueno, ba hori kenduta dago momentu honetan. Inporte horiek ia ez dira erabiltzen, ez ziren berriro ere ipini. Orduan, bueno, ba zuek egindako gauza bat oin gure aurpegira botatzea ez zait iruditzen oso erantzukizunezkoa dela.

Eta besterik gabe, orain bozketara pasatuko gara,

Bozketaren emaitza: **Alkatezaren proposamena, udal karguen dedikazioaren asignazioari buruzkoa, ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	20	
Aldeko botuak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Aurkako botuak:	7	EH BILDU (7)
Abstentzioak:	2	BALEIKE (2)

7.- PROPOSAMENA, AUZO ETA BARRUTIKO BATZORDEAK SORTU ETA OSATZEARI BURUZKOA(2015SKOR0001)

Udal Plenoak, aho batez, Alkatezaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 128 eta 129 artikuluetan eta Udal Erregelamendu Organikoko 47 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa ikusirik, Alkatezak ondoko akordio hau hartzea proposatzen dio Udal Plenoari:



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

LEHENENGO.- Ondoren adierazten diren Auzoetako Batzardeak sortzea, 2015ko maiatzaren 24ko Udal Hauteskundeetan izandako emaitzak kontutan harturik, alderdi politikoek eta koalizioek izendatutako partaideek osatuko dituztenak:

* ERDIALDEKO BARRUTIA

<i>Udal Taldea</i>	<i>Partaide kopurua</i>
EAJ-PNV	5
EH BILDU	4
PSE-EE	1
BALEIKE	0
IRABAZI	0

* SANTA MARINAKO BARRUTIA

<i>Udal Taldea</i>	<i>Partaide kopurua</i>
PSE-EE	3
BALEIKE	3
EAJ-PNV	2
EH BILDU	1
IRABAZI	1

* MUSAKOLAKO BARRUTIA

<i>Udal Taldea</i>	<i>Partaide kopurua</i>
EH BILDU	4
EAJ-PNV	4
PSE-EE	1
BALEIKE	1
IRABAZI	0

* SAN ANDRESKO BARRUTIA

<i>Udal Taldea</i>	<i>Partaide kopurua</i>
EAJ-PNV	4
EH BILDU	3
PSE-EE	2
BALEIKE	1
IRABAZI	0



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

** URIBARRIKO BARRUTIA*

<i>Udal Taldea</i>	<i>Partaide kopurua</i>
<i>EAJ-PNV</i>	<i>4</i>
<i>EH BILDU</i>	<i>4</i>
<i>PSE-EE</i>	<i>1</i>
<i>BALEIKE</i>	<i>1</i>
<i>IRABAZI</i>	<i>0</i>

Adierazitako batzorde horietako bakoitzak beren partaideen artean, gehiengo soilez, bere auzoko Alkatea hautatuko du, Udal Alkatearen onespena jaso beharke duena.

BIGARREN.- *Baserri auzoetako batzorde hauek sortzea:*

- Meatzerreka baserri auzoko batzordea.*
- Musakola baserri auzoko batzordea.*
- San Andres baserri auzoko batzordea.*
- Udala baserri auzoko batzordea.*
- Zaldibar baserri auzoko batzordea.*
- Gesalibar baserri auzoko batzordea.*
- Garagartza baserri auzoko batzordea.*
- Uribarri baserri auzoko batzordea.*
- Bedoña baserri auzoko batzordea.*

Auzoko bizilagunek hautatuko dituzte beren baserri auzoko batzordea osatuko dituzten Alkatea eta beste hiru partaideak.

Auzoetako Alkateen hautapenak Udal Alkatearen onespena jaso beharke du.”

8.- ANTOLAKETA ALORREAN ALKATEAK EMANDAKO HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA (2015SKOR0001)

Udal Plenoak Alkateak emandako honako ebazpenen berri hartu du:



Esp.kodea:
2015APL0010«Código de expediente»

8.1. Alkatearen N 15/01581 ebazpena

“Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20.1.b) eta 23.1 artikuluek eta Udal Arandi Organikoko 36. artikulua, bai eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua onartuz azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 41.3 eta 52 artikuluek ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

LEHENENGO.- Ondoren zehazten diren zinegotziak Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea, indarrean dagoen arautegiak ematen dizkien eskurantza eta prerrogatiba guztiekin:

- *Ibon Arrupe Aldecoea*
- *Juan Ramon Mendieta Garay*
- *Ander Garay Zabaleta*
- *Juan Karlos Garitano Ezkurra*
- *Anuska Ezkurra Zubizarreta*
- *Oscar Garcia Horrillo*
- *Victoriano Fuentes Noguera*

BIGARREN.- Ebazpen honen berri dagozkion zinegotziei ematea. Aldi berean, erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea egingo duen hurrengo bileran eta, azkenik, ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

HIRUGARREN.- Dekretu hau Alkatezako Ebazpen Liburuan transkribatu behar da eta eragina izango duen dataren hurrengo egunetik aurrera.

Arrasaten, 2015eko uztailaren 13an

*ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid”*

8.2. Alkatearen N 15/01584 ebazpena

“Alkateordeak izendatzea.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.2 eta 23.3 artikuluek eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua onartuz azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 41.3 eta 46 artikuluek ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

EBAZTEN DUT:

LEHENENGO.- Ondoren zehazten diren zinegotziak Alkateorde izendatzea, ebazpenean jasotzen den ordenean eta indarrean dagoen arantegiak ematen dizkien eskurantza eta prerrogatiba guztiekin:

<i>Lehenengo Alkateordea:</i>	<i>Ibon Arrupe Aldecocea</i>
<i>Bigarren Alkateordea:</i>	<i>Oscar Garcia Horrillo</i>
<i>Hirugarren Alkateordea:</i>	<i>Juan Ramon Mendieta Garay</i>
<i>Laugarren Alkateordea:</i>	<i>Ander Garay Zabaleta</i>

BIGARREN.- Ebazpen honen berri dagozkion zinegotziei ematea. Aldi berean, erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea egingo duen hurrengo bileran eta, azkenik, ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

HIRUGARREN.- Dekretu hau Alkateordeak Ebazpen Liburuan transkribatu behar da eta eragina izango duen dataren hurrengo egunetik aurrera.

Arrasaten, 2015eko uztailearen 13an

*ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid*

8.3. Alkatearen N 15/01585 ebazpena

“Batzorde informatzaileen Lehendakaritza delegatzea.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 artikuluan, Udal Araudi Organikoko 40 artikuluan, bai eta Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua onartuz azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 125 artikulua ematen dizkidan eskurantzak erabiliz, hauxe

ERABAKI DUT:

LEHENENGO.- Ondoren adierazten diren zinegotziengan eskuordetzea honako Batzorde Informatzaileen Lehendakaritza, indarrean dagoen legediak organo kolegiatuen lehendakaritzari ematen dizkion eskuduntzekin:

<i>Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzorde informatzailea</i>	<i>Ibon Arrupe Aldecocea</i>
<i>Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzorde informatzailea</i>	<i>Oscar Garcia Horrillo</i>



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

Enplegu eta Pertsonal batzorde informatzailea	Juan Karlos Garitano Ezkurra
Ogasun batzorde informatzailea	Ander Garay Zabaleta
Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomia Sustapeneko batzorde informatzailea	Victoriano Fuentes Noguera
Kirol, Gazteria, Berdintasun eta Hezkuntza batzorde informatzailea	Ander Garay Zabaleta
Kultura eta Euskara batzorde informatzailea	Juan Ramon Mendieta
Gizarte Ongizateko batzorde informatzailea	Igor Urizar Murgoitio

BIGARREN.- Dekretu honen berri ematea eskuordetutako zinegotziei, onar dezaten; jakinarazpena jaso eta hurrengo hiru egunetan honen aurka ez erabazten ez bada eskuordetutako eskuduntza tazitoki onartu dela ulertuko da.

HIRUGARREN.- Erabaki honen berri Udaltzarrari ematea egingo duen hurrengo bileran eta, aldi berean, ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarkei Taulan argitaratzea.

LAUGARREN.- Dekretu hau Alkatezako Ebazpen Liburuan transkribatu behar da eta eragina izango duen dataren hurrengo egunetik aurrera.

Arrasaten, 2015eko uztailearen 13an

ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid

8.4. Alkatearen N 15/01588 ebazpena

“Alkatezaren eskuduntzak Tokiko Gobernu Batzarraren esku lagatzea.

Ikusirik apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 21.4 artikuluetan xedatutakoa, Tokiko Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituena, 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.1 eta 43.2 artikuluetan xedatutakoa, horren arabera onartzen baita Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua, eta azkenik Udaleko Erregelamendu Organikoaren 25.3 artikuluan xedatutakoa kontutan izanik, eta horiekin bat datorren gainerako legerian.

Ikusirik, lehenago aipatutako legeriaren arabera, Alkatezaren eskuduntzak eskuordetu ditzaizkeela, betiere kasu hauetan izan ezik: LRBRLko 21.3 artikulua aurre ikusitako kasuetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 13. artikulua jasotakoetan, izan ere, horietan erregulatzen dira eskuordetu ezin diren eskuduntzak.

Nik, Alkate-Udalburuak, legeak ematen dizkidan eskuduntzei baliaturik, hauxe

ERABAKI DUT:



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

LEHENENGO: Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea hemen aipatzen ditudan eskuduntzak:

- 1.- Alkatearekin batera, zinegotzi delegatuen jarduna koordinatu eta zuzentzea.
- 2.- Gestio ekonomikoaren jarduna, onartutako aurrekontuarekin bat, eta gastu hauek xedatzea:
 - Izaera arrunteko gastuak, zenbatekoak 6.000 euro gainditzen duenean.
 - Dirulaguntzak ematea.
 - Udal aurrekontuak baimendutako gainerako gastuak, hartarako ezarritako mugen barruan.
- 3.- Udal aurrekontuaren likidazioa onartzea.
- 4.- Enplegu eskaintza publikoa onartzea, Udalbatzarrak onartutako aurrekontuarekin eta plantillaren arabera; oinarri-arauak onartzea, probak egiteko, batetik, langileak aukeratu behar direnean eta, bestetik, lanpostuak hornitzeko lehiaketak egin behar direnean; eta finkoak eta aldiak ez diren ordainketa osagarriak banatzea.
- 5.- Planeamendu orokorra garatzeko planeamenduko baliabideak onartzea, Udalbatzarrari berariaz ez dagozkionak, eta hirigintza gestioko baliabideak eta hirigintzako proiektuak onartzea.
- 6.- Kontratazio organo izatea, honako kontratu moietan: obrak, hornidurak, zerbitzuak, zerbitzu publikoen kudeaketa, kontratu administratibo bereziak eta kontratu pribatuak, beti ere zenbatekoa 6.000 €tik gorakoa bada, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriko 1. atalak ezarritako muga baino txikiagoa denean. (Muga: gainditzen ez badu udal aurrekontuaren baliabide arrunten %10, ezta ere, edozein kasutan ere, 6 milioi euro, urteanitzekoak barne 4 urte baino gehiago irauten ez dutenean, betiere urte guztiak pilatuta zenbatekoak gainditzen ez badu esandako portzentaia, lehen urtealdiko aurrekontuaren baliabide arruntei buruz, ez eta adierazitako zenbatekoa ere).
- 7.- Udal ondasunei buruzko kontzesioak egitea, ondasun higiezinak eta ondareari buruzko legediari lotutako eskubideak eskuratzea, beren balioa 6.000 €tik gorakoak izan ez eta aurrekontuaren baliabide arrunten %10 gainditzen ez dutenean, eta edozein kasutan ere, 3 milioi euroko kopurua gainditzen ez dutenean, eta ondarea besterentzea, bere balioa adierazitako kopurua eta portzentaia gainditzen ez baldin badu, honako kasu hauetan:
 - Ondasun higiezinena, aurrekontuan aurreikusita badago.
 - Ondasun higigarriena, balio historiko edo artistiko deklaraturakoa izan ezik, izan ere, horien inorentzea ez dago aurreikusita aurrekontuan.
- 8.- Obretako fakturak eta ziurtagiriak onartzea, kontratatzeko eskuduna denean.
- 9.- Zerbitzuetako obra proiektuak kontratatzea,
- 10.- Ondare erantzukizuna.



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

11.- *Lizentziak oro bar ematea, salbuetsiz ordenantzak edo lege sektorialeak Udal Plenoari espreski ematen dizkietenak, eta salbuetsiz, baita ere, beste honako hauek (Hirigintzako zinegotzi eskuordetuan delegatutakoak):*

- *Obra txikietakoko lizentziak (lokalak egokitu eta eraberritzea, erreteiluak egitea, etxebizitzak barrutik zein kanpotik eraberritzea (ad. Etxebizitzetan gas naturala jartzekoak, etxebizitzan kanpo aldean zurgintza aldatzekoak etab.) eta anterakoak).*
- *Kartelak, toldoak, errotuluak edota seinale iragarleak jartzeko lizentziak.*
- *Udal lurra okupatzekoa eta erabilera pribatiboko lizentziak (edukiontzia, andamioak, babes hesiak, mahaiak, karpak, etab. jartzea).*
- *Ibiak jartzeko lizentziak.*
- *Kalterik ez duten eta salbuetsirik dauden jarduerak irekitzeko lizentziak.*
- *IGOKA iharduerak jarri eta irekitzeko lizentziak.*
- *IGOKA iharduerak irekitzeko espedienteen aurreko txostenei buruzko ebaizpenak.*
- *Lan haundiak egiteko obra lizentzia.*
- *Lebengoz erabiltzeko lizentzia.*
- *Jardueren titularitatea aldatzeko baimena.*
- *Egurra ateratzeko eta baserri bideen erabilera berezia egiteko lizentziak.*
- *Lurzorru publikoan jarduketak baimentzea (telefonía, argindarra, gasa, etab.).*

12.- *Aurrekontua garatzeko arauari dagozkion fakturak onartzea, udal aurrekontuak betetzeko arauetan xedatutakoarekin bat badatoz.*

BIGARREN: *Ordezkaritzaren eskumen eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskurantzak eta bere titularrak ezinago ditu beste zinegotzi edo organoren esku utzi.*

HIRUGARREN: *Ordezkaritzak ez du epe mugarik eta iraungo du Legealdi osoan, Alkatetzak honek agintealdia bukatu arte, baina aldatu edo errebokatu egin ahal izango da.*

LAUGARREN: *Delegazio honetako gaien buruz Gobernu Batzordeak hartutako akordio administratiboan testuetan berariaz agertu behar da gorabehera hori, eta eskuordetu ez diren gaietan eskumena ematen duen organoak emandako erabakien balio bera izango dute.*



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

BOSGARREN: Dekretu honen berri ematea Tokiko Gobernu Batzarrari onar dezan.

SEIGARREN: Dekretu honen berri ematea Osoko Bilkurari haren lehenengo bilkuran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaletxeko Iragarki Taulan jartzea.

ZAZPIGARREN: Dekretu hau Alkatetzaren Ebazpenen eta Dekretuen Liburuan transkribatuko da eta indarrean sartuko da duen dataren biharamunean.

Arrasaten, 2015eko uztailaren 13an

ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid

8.5. Alkatearen N 15/01590 ebazpena

“Alkatearen eskumenen eskuordetze generikoak eta espezifikoak Tokiko Gobernu Batzarreko kideen eta zinegotzien alde.

Udal Korporazioa eraturik eta udal jarduera abalik eta eraginkorra izateko asmoz, Alkatetza honen iritziz beharrezkoa da izatera orokorreko eskuduntzak Tokiko Gobernu Batzarreko kideen esku uztea, eta beste bat izatera bereziko zinegotzien esku uzteko.

Ikusirik apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 23.4 artikuluetan xedaturikoa, Tokiko Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen (LBRL), Toki Erakundeen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartu zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 43 artikuluan aurreikusitakoa eta Udaleko Erregelamendu Organiko 26 artikuluan, eta bat datorren gainerako legerian xedatutakoa..

Ikusirik, lehenago aipatutako legeriaren arabera, Alkatetza honek bere eskuduntzak eskuordetu dezakela, beti ere kasu hauetan izan ezik: LRBRLko 21.3 artikulua aurreikusitako kasuetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 13. artikulua jasotakoetan, izan ere, horietan erregulatzen dira eskuordetu ezin diren eskuduntzak.

Nik, Alkate-Udalburuak, legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliaturik, hauxe

ERABAKI DUT:

LEHENENGO: Eskuordetze generiko hauek egitea jarraian zerrendatzen diren gobernu eremuetan edo gaietan eta hemen aipatzen diren zinegotzien alde:

Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasuna:

Ibon Arrupe Aldecocea, Tokiko Gobernu Batzarreko kidea eta Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

	<i>batzorde informatzaileko Lehendakaria</i>
<i>Obrak, zerbitzu, mantentze eta auzoak:</i>	<i>Oscar Garcia Horrillo, Tokiko Gobernu Batzarreko kidea eta Obrak, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzorde informatzaileko Lehendakaria</i>
<i>Enplegua eta Pertsonala:</i>	<i>Juan Karlos Garitano Ezkurra, Tokiko Gobernu Batzarreko kidea eta Enplegua eta Pertsonal batzorde informatzaileko Lehendakaria</i>
<i>Ogasuna:</i>	<i>Ander Garay Zabaleta, Tokiko Gobernu Batzarreko kidea eta Ogasun batzorde informatzaileko Lehendakaria</i>
<i>Komertzioa, Turismoa, Teknologia Berriak eta Sustapen Ekonomikoa:</i>	<i>Victoriano Fuentes Noguera, Tokiko Gobernu Batzarreko kidea eta Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomia Sustapeneko batzorde informatzaileko Lehendakaria</i>
<i>Kirola, Gazteria, Berdintasuna eta Hezkuntza:</i>	<i>Ander Garay Zabaleta, Tokiko Gobernu Batzarreko kidea eta Kirol, Gazteria, Berdintasun eta Hezkuntza batzorde informatzaileko Lehendakaria</i>
<i>Kultura eta Euskara:</i>	<i>Juan Ramon Mendieta Garay, Tokiko Gobernu Batzarreko kidea eta Kultura eta Euskara batzorde informatzaileko Lehendakaria</i>

BIGARRENA: Eskuordetza orokor horiek eskurantz ahauek barne hartuko dituzte, dagozkien jardueraren eremuetan:

2.1. Gobernu eremu guztientzako eskuduntza amankomunak

- a) Alkatea eta Udala ordezkatzeari, alkatea ez dagoenean, bere ordezkari eremuan.
- b) Eskuordetutako udal jardueraren eremuan barne hartutako zerbitzuak eta obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- c) Udalbatzarren eta Tokiko Gobernu Batzarren gai zerrendan gaiak sartzeko proposatzea.
- d) Proposatzea alkateari edo Tokiko Gobernu Batzarri bere ordezkari eremuarekin lotutako akordioak hartzeko.
- e) Batzorde informatzailearen txostena eskatzea, Udalbatzarren eskumena izan gabe ere, haren diktamena edo iritzia beharrezkoa dela pentsatzen duenean.
- f) Batzordearentzat gai interesgarriak izan eta organo eskudunek erabakitzen dituztenean, horien berri ematea batzordeari.
- g) Ordezkari bidez onartutako erabakien berri ematea batzordeari aldiro.
- h) Ordenantzak, Erregelamenduak eta udal akordioak betearaztea, bere ordezkari eremuari dagokionez.



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

- i) Bilerak eta barremanak izatea gainerako batzordeburuekin eta zinegotzi ordezkariekin, elkarrekin koordinaturik egoteko eta elkarren berri izateko.*
- j) 6.000 €tik gorakoak ez diren kontratuak adjudikatzea.*
- k) Zerbitzuetako obra proiektuak onartzea, zinegotzi ordezkaria eskuduna denean kontratatzeko, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.*
- l) Zerbitzuen obiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea, bere eremuari atxikitakoak direnean eta betiere 6.000 € baino gutxiago denean.*

2.2 Gobernu eremuko eskuduntza espezifikokoak:

2.2.1. Hirigintza arloan, jarraian adierazten diren lizentziak ematea eta espedienteak ebatzea:

- Obra txikietakoko lizentziak (lokalak egokitu eta eraberritzea, erreteiluak egitea, etxebizitzak barrutik zein kanpotik eraberritzea (ad. etxebizitzetan gas naturala jartzekoak, etxebizitzaren kanpo aldean zurgintza aldatzekoak etab., eta antzerakoak).*
- Kartelak, toldoak, errotuluak edota seinale iragarleak jartzeko lizentziak.*
- Udal lurra okupatzekoa eta erabilera pribatiboko lizentziak (edukiontzia, andamioak, babes hesiak, mahaia, karpak, etab. jartzea).*
- Ibiak jartzeko lizentziak.*
- Kalterik ez duten eta salbuetsirik dauden jarduerak irekitzeko lizentziak.*
- IGOKA ibarduerak jarri eta irekitzeko lizentziak.*
- IGOKA ibarduerak irekitzeko espedienteen aurreko txostenei buruzko ebaizpenak.*
- Lan haundiak egiteko obra lizentzia.*
- Lehenagoz erabiltzeko lizentzia.*
- Jardueren titularitatea aldatzeko baimena.*
- Egurra ateratzeko eta baserri bideen erabilera berezia egiteko lizentziak.*
- Hirigintza alorreko kontsultei erantzunak.*
- Merkataritza jardueren bajak ebatzea.*



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

- *Lurzorru publikoan jarduketak baimentzea (telefonía, argindarra, gasa, etab.).*
- *Higiezinak kontzerbatzeko eta birgaitzeko eremuko ebazpenak (legezko aurri-egoerak, egikaritze aginduak).*
- *Hirigintza disziplina arloko ebazpenak*
- *Hirigintza eta Ingurumen alorreko expediente zigortzaileak ebaztea*

2.2.2. Ogasun arloan, jarraian adierazten diren funtzio edo eskuduntzak betetzea:

- *Aurrekontuen proiektuak prestatzea, beharrezkoa den aurrerapenarekin, legeak ezartzen duen epeetan Udalak onartu ditzan.*
- *Zerga, errenta eta gainontzeko eskubide ekonomikoen inspektzio, likidazio, kudeaketa eta errekonozimenduari buruzko jardunak, eta konkretuki, errolda fiscal eta zerga likidazioen onarpenak.*
- *Alkatearekin batera, ordainketa aginduak ematea, eta baita sarrerak formalizatzekeo eta kobratzekeo beharrezkoak diren agiriak ematea eta kudeatzea.*
- *Iturbide Egoitza erakunde autonomoak behar duenean diruzaintzako aurrerakinak abonatzea, beti ere, Udal Plenoak onartutako gehienezko defizitaren aurreikuspenak gainditu gabe.*
- *Diruzaintzako nabitatezko arkeoak egitea, eta Alkatearekin batera, Udal Erakundearen funts, balore eta efektuen dispozizio eta kudeaketa amankomunatu (Udal Kontuhartzaile eta Diruzainarekin batera), indarrean dagoen legediaren arabera.*
- *Zatiketak onartzea, aurrez Ogasun batzardeak diktaminatu ondoren, Udal Plenoak 2009-07-16an onartutako Ordenantzako 8. artikuluan xedatutakoak (urte bete baino gorakoak edo zenbatekoa 3.000 €tik gorakoa denean)*

HIRUGARRENA: *Emandako eskuordetze generikoei dagokienez, abalmen hauek mantenduko ditu Alkateak:*

- a) Eskuordetu den eskuduntzaren kudeaketaren informazio zehatza jasotzekoa eta eskuordetze borren arabera sortu diren egintzena ere bai.*
- b) Garrantziko erabakiak hartu baino lehen horien berri jasotzekoa.*

LAUGARRENA.- *Eskuordetze generiko horiek izatera mugagabea izango dute eta iraungo dute horiek ezeztatu arte, Alkateak bere agintaldia amaitu arte edo izendatutakoak karguari berariaz uko egin arte.*

Eskuordetze generiko horiek nahi dituztenean aldatu eta ezeztatu ahal izango ditu Alkateak.

BOSGARRENA.- *Eskuordetze generikoen artean dago erabakitzekeo abalmena, beste batzuei eragiten dizkien administrazio egintzen bidez.*



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

Delegazio hauetako gaii buruz Zinegotzi Ordezkariek hartutako administrazio erabakien testuan, berariaz jaso behar da gorabehera hori eta eskuordetu ez diren gaietan eskumena ematen duen organoak emandako erabakien balio bera izango dute. Erabaki horiek baliozkoak izateko, Zinegotzi Ordezkarien Erabakien Liburuan jaso beharko dira.

SEIGARRENA.- *Eskuordetze generikoez gain, Alkateak eskuordetze bereziak egin ahal izango ditu edozein zinegotziaren alde, gai jakin batzuen zuzendaritza eta kudeaketa egiteko, eta Alkateari dagokio eta, hala badagokio, atxikipen gobernuaren eremuaren eskuordetze generikoa daukan Zinegotziari, zeregin espezifikokoak egiteko eskuordetze bereziak dituzten zinegotziaren jardura gainbegiratzeko abalmena.*

Horri buruz, Alkateak eskuordetze espezifikoko hauek erabaki ditu:

- Igor Urizar Murgoitio zinegotziaren alde eskuordetze berezia, Gizarte Ongizate arloko zerbitzu eta prestazio jakin batzuk (jarraian zehzten dira) kudeatzeko. *Eskuordetze espezifikoko hori atxikirik egongo da zuzenean Alkatetza-Udalburutzaren arlora eta Alkatearekin koordinaturik jardungo du. Eskuordetze honen egitekoen norainokoak barne hartzen du beste batzuei eragiten dieten administrazio egintzen bidez erabakitzeko abalmena. Zinegotzi eskuordetuak zerbitzu eta prestazio hauen inguruan erabakiko du:*

a) Jarraian adierazten diren programetan laguntza ekonomikoak zein gizarte prestazioak onartzea:

- *Gizarte Larrialdietarako Laguntzak*
- *Babesgabetasun egoeretako kasuak*
- *Beren ingurune familiarra etor ezin diren pertsonen senideek bisitak egiteko laguntzak*
- *Etxeko Laguntza zerbitzua*
- *Drogamenopekotasunen tratamendurako laguntzak.*
- *Babesetxea erabiltzeko baimenak ematea.*
- *Norbere Fondoaren laguntzak*

b) 6.000 €tik gorakoak ez diren kontratuak adjudikatzea eta zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea, bere eremuari atxikitakoak direnean eta betiere 6.000 € baino gutxiago denean

- Juan Ramon Mendieta Garay zinegotziaren alde, BAZ zerbitzuaren kudeaketaren ardura bereganatzeko. *Eskuordetze espezifikoko hori atxikirik egongo da zuzenean Alkatetza-Udalburutzaren arlora eta Alkatearekin koordinaturik jardungo du. Eskuordetze honen egitekoen norainokoak ez du barne hartzen beste batzuei eragiten dieten administrazio egintzen bidez erabakitzeko abalmena.*

Emandako eskuordetze espezifikoei dagokienetz, haren jardura gainbegiratzeko abalmena mantenduko du Alkateak eta eskuordetutako eskudantziaren kudeaketaren informazio zehatza jasotzeko abalmena.



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

Eskuordetze horrek izaera mugagabea izango du eta iraungo du eskuordetze bori ezeztatu arte, Alkatearen agintaldia bukatu arte edo karguari berariaz uko egin arte.

Eskuordetzeak nahi ditunengan aldatu eta ezeztatu ahal izango ditu Alkateak.

ZAZPIGARRENA.- Alkateari egokituko zaio Zinegotzi Ordezkarien jardunaren koordinazioa eta haien arteko eskumen gatazkek erabakitzea.

ZORTZIGARRENA.- Etorri ezean, gaixorik egonez gero edo beste edozein eragozpen izanez gero Zinegotzi Ordezkariek, Alkateak beregain hartuko ditu, zuzenean eta besterik gabe, eskuordetutako eskumenak, jatorriko eskumenaren titularra baita, eta ondorio horietarako ulertuko da goragokoak eskumena bereganatzeko abala erabili duela, Dekretu honetan oinarriturik, zentzu horretan berariazko erabaki berriaren premiarik gabe.

BEDERATZIGARRENA.- Ordezkaritza honen terminoetan eta mugetan bete beharko dira eskuordetutako eskuduntzak, eta titularrak ezingo ditu eskuordetu beste organo edo zinegotzi baten alde.

HAMARGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea zinegotzi afektatuei, onartu dezaten, eta ulertuko da eskumen bori onartu dutela, baldin eta hurrengo hiru egunetan ezer adierazten ez badute haren aurka.

HAMAIKAGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Udalbatzarrari, egingo duen lehenengo bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaletxeko Ediktuen Taulan jartzea.

HAMABIGARRENA.- Dekretu hau Alkatetzako Erabakien eta Dekretuen Liburuan transkribatuko da eta egin eta hurrengo egunetik aurrera izango du balioa.

Arrasaten, 2015eko uztailaren 13an

ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid

8.6. Alkatearen N 15/01592 ebazpena

“ITURBIDE EGOITZAko erakunde autonomoaren Lehendakaritza delegatzea

Udalbatza berria eraturik eta kontuan izanik Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoko Lehendakaria izendatu behar dela, erakundearen estatutuek eta indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

ERABAKITZEN DUT:



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Código de expediente»

LEHENENGO.- Ondoren adierazten den zinegotziarengan eskuordetzea Iturbide Egoitzako Lehendakaritza, erakundearen estatutuek eta indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskuduntzekin:

➤ **ITURBIDE EGOITZA: Igor Urizar Murgoitio**

BIGARREN.- Dekretu honen berri ematea eskuordetutako zinegotziari, jakinarazpena jaso eta hurrengo biru egunetan onar dezan; honen aurrean ezer adierazten ez badu, eskuordetutako eskuduntza tazitoki onartu dela ulertuko da.

HIRUGARREN.- Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea egingo duen hurrengo bileran eta, aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

LAUGARREN.- Dekretu hau Alkatetzako Ebazpen Liburuan transkribatuko da eta eragina izango du duen dataren hurrengo egunetik aurrera.

Arrasaten, 2015eko uztailaren 13an

ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid

8.7. Alkatearen N 15/01593 ebazpena

“Tokiko Gobernu Batzarraren bileren egunak eta orduak finkatzea.

Udal Araudi Organikoko 78.1 artikulua eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua onartuz azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 112.3 artikulua ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

- Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarraren bilera arruntak astelehenero, arratsaldeko 15:30etan egingo dira.

Arrasaten, 2015eko uztailaren 13an

ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid



Esp.kodea:
2015SAPL0010«Códigodeexpediente»

MARIA UBARRETXENA (Lehendakaria): Norbaitek honen inguruan zer bait esan nahi baldin badu. Ez? Galde eskeak baldin badaude....., bueno ba ez baldin badaude Plenoa bukatutzat ematen dugu. Eskerrik asko.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 17:40etan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2015eko uztailaren 13an

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

María Ubarretxena Cid